

Bilbo inguruetan egin da aurten ikasturte amaierako txangoa

2011/07/19

Lehendabizi, "Euskal Herria" ontzia hartu Santurtzin, eta Bilboko udaletxe pareraino joan ziren, itsasadarrean gora. Esperientzia polita, uretan gora egin ahala, Bilboren historia industrialia izan zuten-eta itsasadarrean ezker-eskuin.

Gero, Bilbo zaharreko zenbait leku bisitatu zituzten, **Pedro eta Aitor Zuberogoitia** anaien gidaritzapean, gehiago jakin guran zelako bilakaera izan zuen euskarak Bizkaiko hiriburuan.

Ondoren, Artxandara igo funikularrez, eta bertan bazkaldu zuten, bapo bazkaldu ere. Txangoko argazkiak [Flickr-en](#) daude ikusgai.

